

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

15. astea (2025eko apirilaren 7tik 13ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen du, ABSrenak behera egin du aurreko astearekin alderatuta eta COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 306,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (327,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak behera egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 34 lagin jagoleen % 73,5 baieztatu da, 3 gripe-birus eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik, baina ez ABSik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 62 gripe-birus, 30 SARS-CoV-2 eta 15 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 306,0 kasukoa izan da (327,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 266,2/100.000 izan da Araban, 318,1/100.000 Bizkaian eta 305,2/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2903,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urteko adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1556,0 eta 446,3 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 112,3 kasukoa izan da (127,3/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabera intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 15. astea	Tasa 14. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	292,2	291,2	1,00 (0,91-1,10)
Arabar Errioxako ESI	408,1	459,1	0,89 (0,60-1,31)
Barakaldo-Sestaoko ESI	271,9	290,9	0,93 (0,81-1,08)
Barrualde-Galdakaoko ESI	328,4	355,6	0,92 (0,85-1,01)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	353,2	365,6	0,97 (0,89-1,05)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	308,8	320,0	0,97 (0,85-1,09)
Uribeko ESI	258,3	289,4	0,89 (0,80-1,00)
Bidasoako ESI	278,4	300,4	0,93 (0,77-1,12)
Debarrenako ESI	326,9	335,3	0,98 (0,81-1,17)
Debagoienako ESI	285,1	305,4	0,93 (0,76-1,14)
Donostialdeako ESI	285,4	317,8	0,90 (0,83-0,98)
Goierri-Urola Garaia ESI	325,5	382,7	0,85 (0,73-0,99)
Tolosaldeako ESI	328,1	346,7	0,95 (0,78-1,14)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 4,3 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (5,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du eta 100.000 biztanleko 188,8 kasutan kokatu da (195,9/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 2,0koa izan da (2,2/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIarako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 34 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 73,5 baieztatu dira. 3 gripe-birus (guztiak AH3) eta SARS-CoV-2 atzeman dira, baina ez ABSik. 7 errinobirus, 6 metapneumobirus eta 4 parainfluenza birus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMan eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 8,8ra jaitsi da aste honetan (% 12,5 aurreko astean). ABSren positibotasunak behera egin du % 0,0an kokatuz (% 2,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arenak ere behera egin du % 2,9raino (% 6,3 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 20,6koa izan da (% 18,8 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin
jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE**


	15. astea		14. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	3	8,8	6	12,5	520	31,2
SARS-CoV-2	1	2,9	3	6,3	33	2,0
ABS	0	0,0	1	2,1	70	4,2
Metaneumobirus	6	17,6	6	12,5	52	3,1
Parainfluenza	4	11,8	3	6,3	64	3,8
Adenobirus	1	2,9	0	0,0	69	4,1
Errinobirus	7	20,6	9	18,8	282	16,9
Urtaroko CoV	2	5,9	6	12,5	87	5,2
Enterobirus	2	5,9	2	4,2	42	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 12,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean), 12,6/100.000 gizonetan eta 11,8/100.000 emakumeetan.

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 37,6 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 36,9 eta 14,4 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,0koa izan da 100.000 biztanleko (1,1/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,3 kasukoa 100.000 biztanleko (0,3/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du aste honetan eta % 13,3an kokatu da (% 11,6 aurreko astean). ABSrena % 1,2ra jaitsi da (% 3,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,5eko izan da (% 3,2 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	15. astea		14. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	198	2,5	219	3,2	7641	2,1
Influenza	165	13,3	198	11,6	6943	24,8
ABS	165	1,2	192	3,1	6452	11,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 62 gripe-birus, 30 SARS-CoV-2 eta 15 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 62 gripe-birusetatik, 38 A motakoak izan dira, 19 A(H3), 4 A(H1)pdm09 eta B motako bat. 2024/40 astetik 9137 detekzio erregistratu dira, 7135 (% 78,1) A motakoak eta 2002 (% 21,9) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3562 birusetatik, 2413 (% 67,7) A(H3) eta 1149 (% 32,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko apirilak 16

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza